

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Abaigar, beste modu batean bizitzeko udalekua

Urniatar askoren bihotzean iltzaturik dago Abaigar herria, Euskal Udalekuei esker. 50 urte beteko dira aurten Abaigarko proiektua abiatu zela / 2-4

## Adimen emozionala

Andoainen eta Urnietan ikastaro bana eskainiko duen Saioa Garmendiari elkarrizketa / 5

**Babes zabalarekin onartu dute Andoainen 27 milioi euroko udal aurrekontua / 7**

**Aitziber Ugartemendia omenduko dute Basteron, igandean. Sarrerak Li dendan eskuragarri daude / 15**

**kutxabank MASTERS** TRAPELKETA 2024 **FINAL HANDIA** OTSAILAK 24 LARUNBATA 15:15EAN GALARRETA 3MI ALAI HERNANI

1. PARTIDAN (3 SETERRA) SEGUROLA · BARRENETXEA IV vs EZKURRA II · LARRAÑAGA

FINALA (30 TANTORAI) ANSA II vs AZPIROZ

3. PARTIDAN (3 SETERRA) GOIKOETXEA V · JUANENEA vs ALDABE · ZALDUA

ORNA PREMIER | ENBREMONTA | Orona | EUREKASI | ES SUPKID | AQUARIVA | AIURRI





Abaigarko udalekuetako hezitzaile-taldeko kide da Alba Quel. Lehen planoan, ezkerretik hasita, bosgarrena da. EUSKAL UDALEKUAK

# “Zenbat eta gehiago eman, orduan eta zeureago sentitzen duzu Abaigar”

**ALBA QUEL MOREIRO** ABAIGAR UDALEKUETAKO HEZITZAILEA

50 urte betetzen ditu aurten Abaigarko Euskal Udalekuak. Martxoaren 3an irekiko da bertan izena emateko epea, Goñirekin eta Bernedorekin batera

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Mende erdi igaro da, lehenengo aldiz, Euskal Udalekuek Abaigarren (Nafarroa) lur hartu zutenetik. Harrezkero, Egaren ur bazterretan, gari soroz inguratuta, urtero-urtero, Euskal Herriko makina bat zirrikitutatik gerturatutako ehunka umek gozatu dute bertan udalekuak sorrarazten dien “askatasun zurrunbiloaz”. Oztupoak oztupo, eta, urteek aurrera egin ahala, moldez eta formaz eraldatzen joan den arren, ez du galdu oi-

narria, magia. Bada, horren lekuko izan dira urte luzez urnietar asko eta asko, tartean, Alba Quel Moreiro herrikidea. Orain hamahiru urte, umea zela ezagutu zuen Abaigar. Ordutik, estuki lotuta egon da proiektura. Udaberria ate joka, burubelarrri dabil gainerako hezitzaileekin batera udalekuak presatzen. Martxoaren 3an irekiko da izen-emateko epea Abaigarren, baita Euskal Udalekuen triangelua osatzen duten Bernedon eta Goñin ere.

**50 urteko bidea osatu du aurten Abaigarrek... Bertako bizilagun komunitatearen parte izango zarete, honezkerok!**

Bai, esan genezake baietz, herriaren dinamikaren parte bihurtu gara. Abaigarren bertan, ez dago ia saltokirik, adibidez. Baina alboko herrietara jotzen dugu gehiago erosketak egiteko. Udalerriak badu zerbitzu bat, igerilekua, eta horri erabilera handia ematen diogu. Oro har, etxeko konponketak edo bestelako beharrak direla edo beti

ahalegindu izan gara harremana estutzen herrikideekin.

**Gogoan al daukazu Abaigar zapaldu zenuen lehen urtea?**

Zertxobait gogoratzen naiz, bai. Uste dut ondoen pasatu nuen txanda izan zela lehenena... Betirako lotzen zaituena (barreak)... Urnietako beste lagun batekin joan nintzen, Anerekin. Lehenago Bernedon izan ginen eta nire anaia zaharrenagatik genuen Abaigarren berri. DBHn joan ginen lehenengoz Abaigarrera udalekuetan. Bertan ezagututako lagunak gurekin izan dira ondorengo urteetan ere. Hasiera batean, herrikideekin batera ematen genuen izena. Urtetik urtera, Abaigarren bertan ezagututako jendearekin joaten ginen.

**Umea zinela ezagutu zenuen zuk Abaigar. Adinean aurrera joan ahala beti topatu izan duzu, ordea, formula bat edo beste udalekuei lotuta egoteko. Zer du Abaigarrek urtero-urtero, uda partean, hara itzuli nahi izateko?**

Beste errealtate bat bizitzen duzu Abaigarren, eta mundua ulertzeko beste modu batekin egiten duzu topo bertan. Zuk ematen diozun beste jasotzen duzula bueltan izango da, ziur-ziur, Abaigarrek duen gauzarik bereziena. Ume gisa joatetik, hezitzaile izateko jauzi horretan, guztia aldatzen da. Haur moduan, udaleku batekin duen herenaren herena ikusten duzu. Txikia zarelara, uste duzu dena eginda dagoela. Zenbait gauzatan, hezitzaile bihurtzearekin batera, magia galtzen da, beharbada. Baina, era berean, proiektuari zenbat eta gehiago eman, orduan eta zeureago sentitzen duzu Abaigar.

Udalekuetan dagoen jende gehiena, lehenago, ume gisa ibilitakoa da. Egia da, batzuetan, batu izan zaigula jende berria, sustatu nahi dugun udalekuereduarekin bat egiten duelako. Umeak izango balira bezala gozatzen dute Abaigarko udalekuez.

**Zerk bereizten ditu Euskal Udalekuak gainerako udalekuekin?**

Boluntario-izaerak nabarmen bereizten gaitu. Ez da gauza bera udalekuetara joatea udan lan egin nahi duzulako edo benetan zuk hara joan nahi duzulako, nahiz jakin horrek ez dizula, diruz, trukean ezer emango bueltan. Abaigarren sortzen den atmosfera, elkar zaintzeko

zein harremantzeko modua... Oso ezberdina da dena.

**Euskara eremu akademikotik ateratzen dute Euskal Udalekuek eta bizipen positiboekin lotzen dute hizkuntzaren ikasketa-prozesua. Nola asmatu horretan?**

Euskara da gure tresnarik baliagarriena, eta, era berean, hamabost eguneko txandaren protagonista. Beti ahalegintzen gara euskal errealtate ezberdinetako jendea biltzen, elkarrengandik ikas dezaten. Oso polita izaten da, lehen aldiz, ulertzen ez dituzten beste euskalki batzuekin egiten dutenean topo umeek. Are gehiago, ederra da ikustea nola konturatzen diren Iparraldeko eta Hegoaldeko haurrak euskara dela elkarren artean ulertzeko hizkuntza bakarra, ez dagoelako besterik komunean.

**Erreminta bezain helburu duzue euskara. Dena dela, ez da Abaigarren xede bakarra. Zein beste norabideri begira egiten dituzue udalekuak?**

Hezkidetzak eta parekidetasunak beti izan dute garrantzi handia gurean, baita naturarekiko konexioak eta errespetuak ere. Sexualitatearen naturalizazioa, askatasuna, norbanakoaren gaitasun propioak sustatzea, kontsumismoaren gaineko jarrera kritikoa... Askotariko balioak jorratzen ditugu eta euskarak modu transbertsalean zeharkatzen ditu horiek guztiak.

**Lan-ildorik oinarri, zein mota-tako ekintzak nahiz irteerak egiten dituzue zuen udalekuetan?**

Herri txikia da Abaigar eta herriko txoko guztiei zuku ateratzen ahalegintzen gara. Hor inguruan, basoa dago, eta makina bat ekintza egiten ditugu bertan. Zenbait txandatan, pare bat mendi-martxa ere egiten ditugu. Igerilekura joan ohi gara, errekarara... Herriari bizia ematen diogu, aldi berean.

**Udalekuak udako sasoiaren izan arren, zein da zuen jarduna urteko gaine-rako hilabeteetan?**

Urte osora luzatzen da udalekuko antolatzaileon jarduna, geure buruak behar bezala prestatu nahi ditugulako hezitzaile gisa, ondoren, egiten ditugun jolas eta dinamika guztiek, izaera ludikotik harago, bestelako xede batzuk ere izan ditzaten.

Kontuan izan behar da boluntarioz osatutako taldea gara. Hortaz, berebiziko garrantzia ematen diogu talde-izaeraren egonkortasunari, geure oinarrietako bat baita. Hori sustatzeko,





Udan, hamabostaldi ederrak igaro ohi dituzte Euskal Herriko haurrek eta nerabeek. EUSKAL UDALEKUAK



Mendi-irteerak egiteko aukera izaten dute udalekuetan. EUSKAL UDALEKUAK

gure arteko harremanak sendotzen ahalegintzen gara, bai Abaigarreko jendearen artean, bai Euskal Udalekuetako gainerako kideekin. Horrela, urtea hastearrekin batera, buru-belarri ipintzen gara martxan, udari begirako prestaketa-lanetan: etxea atontzen, bertako jendearekin harremanetan jartzen...

**Mende Erdiko ibilbidean, guztia ez da gozoa izan. Gorabeherak ere izan ditu udalekuak, tartean. 2016an, esaterako, aterpetxe-lizentziak eta legeak medio, udalekuen formatua berrasmatu behar izan zenuten.**

Ume izatetik hezitzaile izaterako jauzian harrapatu ninduen horrek guztiak, 2016an. Etxeari aldaketak egin behar genizkiola jakinarazi ziguten, aterpetxe-izaera eskuratzeko. Hori egin ezean, ezin genituen bertan egin gure udalekuak. Praktikoki, etxea goitik behera aldatu beharra zegoen, eta ia 300.000 euroko kreditua eskatu behar izan genuen horretarako.

Koop57 kreditu-kooperatibarekin egin genuen kudeaketa. Berez, Herrialde Katalanetakoa da, baina Euskal Herrian, maiz erabili izan da. Nahiko erraztasun jarri zizkiguten. Abal gisa etxea bera ez jarri behar izatea lortu genuen, eta ia 120 pertsona jarri ziren abal-emaile moduan. Bakoitzak erabakitzen zuen 1.000, 2.000 edo 5.000 euro abalatu kreditu osotik. Bertan konturatu ginen jendeak zenbat sinesten duen proiektuan.

2016an, Urdirotzera lekualdatu ginen. Bertan, soilik, bi txanda egin ahal izan genituen. Hortaz, zaharrenekin, udaleku ibiltariak egin genituen. 2017an, obraren kudeaketa betean harrapatu gintuen eta ez genuen indarrik eduki udalekuak antolatuzko. 2018an, Ozaetako etxea lortu genuen, eta,

2019an, behin obra eginda, Abaigarrera itzultzea lortu genuen. Itzuleran, obra amaitu genuenean, harrera ederra egin ziguten herritarrek: “Ongi etorri Abaigarrera” zioen pankarta eskegi zuten herrian. Oilo ipurdia jartzen zaigu oraindik!

**Euskal Udalekuen parte da Abaigar, Goñirekin eta Bernedorekin batera. Abiapuntu komunetik hasita, nor bere ibilbidea osatzen joan arren, ba al duzue elkarren artean harremanik?**

Aipatu dizkizudan balio guztiak ditugu hiru Euskal Udalekuek oinarrian. Kolore bera partekatzen dugu, nahiz eta, ondoren, bakoitzak bere moduan nabartu. Elkarren artean koordinatu ahal izateko bilerak egiten ditugu. Hiru udalekuak lotzen dituen egoitza ere badugu, eta bertatik kudeatzen da izen-ematea, autobus-zerbitzuen koordinazioa, gurasoekin harremana... Komunikazio-kanpaina guztia elkarrekin egin ohi dugu. Nahiz eta ondoren, nork bere norabide hartu, zenbait marko partekatzen ditugu.

**Hamahiru urte igaro dira Abaigar lehenengoz zapaldu zenuenetik. Aise aldatu zara zu, harrezkero. Zertan aldatu da Abaigar?**

Osorik aldatu da; ez, soilik, erakinari begira, baita belaunaldiei dagokionez ere. Errealitatea aldatu da Abaigarren, orokorrean, jendartearen, aldatu den modu berean. Balio berberak izaten jarraitzen dugu, baina udalekuetan nola islatzen diren, nola egikaritzen ditugun, oso ezberdina da. Dena dela, mamian, bere horretan dirau Abaigarrek.

**Beraz, zertan ez da aldatu?**

Aldaketak aldaketa, oinarrian, nire ustez, behin hamabostaldia eginda, jendeak oraindik ere tatuaje berdina darama etxera.



**Eman izena!**  
Martxoaren 3tik aurrera



**Abaigar**

**1. TXANDA**  
Uztailaren 1tik 15era  
09/08/2024an jasok - 350€

**2. TXANDA**  
Uztailaren 16tik 29ra  
10/11n jasok - 350€

**3. TXANDA**  
Uztailaren 30tik  
abuztuaren 12ra  
12/13an jasok - 350€

**Bernedo**

**1. TXANDA**  
Uztailaren 16tik 18ra  
12/13an jasok - 200€

**2. A TXANDA**  
Uztailaren 19tik 23ra  
14/15an jasok - 200€

**2. B TXANDA**  
Uztailaren 23tik 31ra  
14/15an jasok - 200€

**3. TXANDA**  
Uztailaren 31tik  
abuztuaren 6ra  
16/17an jasok - 150€

**4. TXANDA**  
Abuztuaren 8tik 23ra  
09/10/11n jasok - 175€

**Goñi**

**1. TXANDA**  
Uztailaren 8tik 17ra  
10/11n jasok - 225€

**2. TXANDA**  
Uztailaren 17tik 30era  
12/13an jasok - 335€

**3. TXANDA**  
Uztailaren 30etik  
abuztuaren 6ra  
14/15an jasok - 235€

**Informazio gehiagorako:**  
udalekuak@udalekuak.eus  
@euskaludalekuak  
633576823  
**Ordutegia:**  
16:00-20:00





## "Oso goxo hartu gaitu beti Abaigarrek"

### ENARA PELLEJERO

Abaigar hitz gutxitan deskribatzea ez da erraza, etxe horrek daukan magia izugarrikoa baita. Gure haurtzarora askan bustitzetik hasi genuen eta, gazte izateraino, urtero-urtero, 15 egun luzez han bildu gara, lagun, begirale eta sukaldari. Esker hitzak besterik ez zaizkit etortzen burura, Abaigar, hitz gutxitan deskribatuta, lau urtez jarraian, etxea izan delako, alegia, babesleku.

### IRANTZU OIARTZABAL

Niretzat Abaigar laguntasuna, zaintza, babesa, gozamina, konfiantza, askatasuna, feminismoa, ahalduntzea, jolasa, barrea, kantua, dantza... biltzen eta transmititzen dituen espazioa izan da. Bihotza benetan zeharkatzen eta mamitzen duten momentuak bizitzeko topaleku aparta. Zenbat eskertzeko!

### IÑIGO JUANIKORENA

Abaigar, niretzat, herritik haragoko sozializazioaren lehen pausua izan zen. Hamabi urteko ume batek Euskal Herriaren heterogeneotasuna ezagutzeko sarrera. Hamabost urtera bitarte, hiru txanda egin nituen han eta, mundua Egape Ikastolako ikasturte batera mugatzen den adin horretan, bizkaieraz edo lapurteraz mintzo den jendea ezagutzea exotikoa dela esan genezake. Bertan hasi nintzen konturatzen euskal lurralde ezberdinetako jendeak asko duela antzekotik, eta baita ezberdinetik ere. Aurrerago, urrun gelditutako udaretako esperientzia polita besterik ez zela uste nuen hori, bueltan azaldu da nire bizitzako fase ezberdinetan. Hemezortzi urterekin, graduko lehen egunean, hortxe zeuden aspaldi ikusi gabeko bi kide; 21ekin, parrandan, hantxe aurkitu nituen ahaztuak neuzkan beste hiru, eta abar. Bakoitzak bere eboluzioa eginda, baina bizipen bat komunean. Orokorrean, ez dut esango bizitza zeharo aldatu didan fase bat izan denik, baina bai, dudarik gabe, hazte-prozesuan lagundu didan esperientzia bat.

### AINHOA ARRUTI

Udaleku bat baino askoz ere gehiago izan da Abaigar. Bakoitza garen bezala izateko aukera eman digun espazio bat, etxe bat, Euskal Herriko txoko askotako jendearekin batera. Lagun handiak egin ditugu bertan, eta horietako askorekin, oraindik, harremana izaten jarraitzen dugu. Ume gisa joateaz gain, bertan begirale izateko zortea izan nuen eta oso esperientzia polita izan zen. Oso babestua sentitu naiz bertan, oso goxo hartu gaitu beti Abaigarrek.

### MADDI IBAÑEZ

Gure burbuila partikularra izan da Abaigar. Espazio seguru bat, norbera, epairik gabe, den bezala izateko tokia. Euskal Herriko txoko guztietako lagun handiak egin ditugu, eta, toki, bakoitzean, euskarak bizi duen egoera ezagutzeko aukera izan genuen, bakoitzaren errealitatea entzunez eta horren gainean hausnartuz.

### IMANOL ODRIUZOLA

Hiruzpalau urtez joan nintzen lagun batekin, eta Abaigarrek Urnietatik kanpo, lehen aldiz, denbora-tarte luzexka batez egoteko aukera eman zigun. Bertan, Euskal Herriko askotariko txokotatik gerturatutako jendea biltzen ginen, eta nork bere harremana zuen euskararekin. Bigarren egunetik aurrera, lagun handiak egiten genituen. Gauza asko erakutsi zizkigun Abaigarrek.

### ANDER GOYA

Hamaika urte edo igaro dira, azkenekoz, Abaigarren izan ginenetik. Abaigar oroitzapen bihurtu zen duela asko, gogoan ditut udako eguzkiaren epeltasuna, belazeen zein goizko igerilekuko kloroaren usaina eta erleen burrunba. Berandu arteko sekretuak, lehenengo musuak, bazkalaurreko kantak eta gitarrea. Oroitzapen politikak, bakea dakartzaten horietakoak.



Garai bateko logelak, erreforma egin aurretik. Argazkian, zenbait urnietar ageri da. EUSKAL UDALEKUAK



Abaigar etxea, 1974. urtean. EUSKAL UDALEKUAK

## Egunean eguneko albisteak sarean



KIROL ALBISTEAK



GERTAERAK



AKTUALITEA

**AIURRI.EUS**

**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**





Saioa Garmendia adimen emozionalean aditua da. Ibilbide profesional luzea garatzen dihardu, urteotan. GARMENDIA

# "Gure gorputzari arreta jartzea ezinbestekoa da"

**SAIOA GARMENDIA URIALDE ONGIZATE EMOZIONALEAN ADITUA**

Jabekuntza Eskola martxan jartzear da Andoainen eta Urnietan, eta bi udalerrietan ikastaro bana emango du Garmendiak

**Jon Ander Ubeda ANDOAIN**

**Denbora tarte beretsuan Andoaingo eta Urnietako Jabekuntza Eskolan parte hartuko al duzu? Zein da, oinarrian, ikastaroan eskainiko duzuna?**

Bi udalerrietan eskainiko dudak ikastaroa berbera da. Egia da Urnietan profil orokor bati zuzenduta dagoela, hots, herritar osoari begira. Andoainen eskatu didate etxean dauden zaintzaileei begirako ikastaroa eskaintzea.

**Eta nor da Saioa Garmendia?**

Ongizate emozionala eta autozaintetan aditua naiz, baita emozioen kudeaketan ere. Lanketa handia egiten dut bizitza kontzientea izateko garaian. Gure gorputza ulertzea ezinbestekoa da, hain era automatikoan bizi garen garaiotan.

**Zure esperientziagatik, arlo horietan, gabezia asko ditugula esango al zenuke?**

Bai. Erritmo oso azkarrean bizi gara. Inkontzienteki egiten ditugu gauza asko eta kontzientean bizitzen ikasi beharra dago.

Ohartu beharra dugulako nola gauden. Lanketa handia dago egiteko. Presaka bizi gara, eta gizarteak gainera abiadura horretan bizitera garamatza. Ekoiztera bideratu gaituzte, eta egotea eta sentitzea bigarren mailako bilakatu dira. Zer moduz gaude? Arreta jartzen diogu gure buruari? Askotan, ez dakigu zer dugun, baina zerbait gertatzen ari zaigu. Eta gure buruari arreta handiagoa jarri behar diogu. Askotan, esan ohi dut gizarte hedonista bat eraiki dugula,

mezu ugari jasotzen ditugu perfekzioa helburu izanik. Etengabeko zoriontasuna eta perfekzioa ez dira errealak. Zoriontasuna une zehatza da, ez da etengabeko egoera bat. Baina gizarte honek zoriontasunaren eta perfekzioaren etengabeko bilaketara garamatza, eta hori betetzen ez denean frustrazio handia sortzen da.

Ez dugun horri arreta gehiegi eskaintzen diogu, eta dugun hori ez dugu gehienetan batere baloratzen. Zer pasa zitzaidan eta zer egingo dudan, bi denbora-egoera horietan bizi gara, unean unekoari erreparatu gabe. Ulergarria da horrela bizitzea, egun, inertzia askok horrela bizitzera garamatzatelako.

Hasteko eta behin, bizitzeko moduaz kontzienteago izan behar gara, eta, gudan, asko dago egiteko. Behar denean lasaitzeko, eta gauzak beste era batera egiten hasteko.

**Inertziak aipatu dituzu. Rolak eta generoak, oraindik orain, zeresan handia dute.**

Txikitatik, informazioa jasotzen ari gara etxean, eskolan, inguruan... Sinesmen batzuk eraikitzen dira horrela. Hazten zoazen heinean, gutako askok barnerratu dugu zaintzaileak neska izan behar duela. Horrela, ulertzen da zaintzaile gehien-gehienak emakumezkoak izatea. Gizonezkoekin ere errotuta zegoen ez dutela negar egin behar. Kultura horren ondorio da gizonezkoei gehiago kostatzen zaiela beren sentimenduak adieraztea. Finean, inkontzienteki, txikitatik jasotako informazioaren arabera harremantzen gara. Eta sentitzen dugunaren arabera jokatzeko hasi beharko genuke, nire ustez.

**Nolakoak izango dira saioak?**

Bi orduko saioak dira, talde txikitik eta konfiantzazko giroan egingo ditugunak. Arnasketak garrantzi handia izango du, lasaitzen ikaragarri laguntzen digulako. Emozioei buruz hitz egiten ikasi behar dugu. Kanpora begira bizi gara. Garrantzia ematen diogu gutaz esango duten horri. Eta funtsezkoena gu ondo sentitzea, ondo egotea da.

**"EKOIZTERA BIDERATU GAITUZTE, ETA EGOTEA ETA SENTITZEA BIGARRREN MAILAKO BILAKATU DIRA"**

## Martxoaren 13an hasita, Urnietan

"Ongizate emozionalaren eta autozaintetaren tailerra" izenburupean, ikastaroa eskainiko du Urnietan. Plazak bete arteko aukera izena emateko.

- Ikastaroaren deskribapena: Ongizate emozionalaren ikuspegia, autoestimua hobekuntza eta erlaxazio-teknikak.
- Datak: martxoak 13, apirilak 10 eta 24 eta maiatzak 8.
- Ordutegia: asteazkena, 18:00-20:00. Elebiduna.
- Matrikula: 5 euro. 10 euro, erroldatu gabeak.

## Martxoaren 21ean hasita, Andoainen

"Zaintzaileentzako ongizate emozional eta autozainteta lantegiak", horixe da Andoaingo ikastaroaren izenburua.

- Ikastaroaren deskribapena: Gure ongizate emozionala zaintzeko behar dugun guztia ikusiko dugu, geure buruarekin ondo eta lasai sentitzeko, gure egunerokotasuna hobetzeko, gure autoestimua hobetzeko, gure emozioak hautemateko eta menderatzeko baliabideak eskainiz, eta daukagun estresa murrizteko erlaxazio-teknika desberdinak erabiliiko ditugu.
- Datak: martxoak 21, apirilak 18 eta 25 eta maiatzak 2, 16 eta 30 eta ekainak 13, 27.
- Ordutegia: 15:00-17:00.
- Tokia: Urigain.
- Doan.



## Zortzi langabetu kontratatzeko deialdia

Horma-irudien lanketan trebatuko dituzte, hainbat hilabetetako lan-hitzarmena eskainiz

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak lan merkantuan murgiltzeko ekimen berria aurkeztu du. Lanbideren eskutik, eta Europako Gizarte Funtzak baliatuta, zortzi pertsoneri lanaldia eskainiko diete. Formakuntza jasoko dute, lehenik eta behin, eta ondoren lan zehatza egingo dute. Onuradunak izan daitezke iraupen luzeko langabeak, gutxieneko dirusarrerara jasotzen duten pertsonak eta kualifikazio txikiko langabeak. Deialdiak muralismoa izango du ardatz, eta martxoaren 20an abiatuko da. Horma-irudia edo murala, paretetan edo bestelako euskarri finko eta egonkor baten gainazalean marrazten dena da. Alor horretan trebatuko dira.

Hautaketa-prozesua Lanbideren bitartez egingo da. Hortaz, interesatuek izena emanda egon behar dute [www.lanbide.eus](http://www.lanbide.eus) webgunean. Otsailaren 29a izango da azken eguna.

Informazio gehiago nahi duenak Andoaingo Udaleko Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Lansailera zuzendu beharko du:

- 943 304 221.
- [enplegua@andoain.eus](mailto:enplegua@andoain.eus).
- [efteknikaria@andoain.eus](mailto:efteknikaria@andoain.eus).

## "Andoain Laburrean" sari-banaketa ekitaldia

Bederatzigarren ediziora iritsi da "Andoain Laburrean" ikus-entzunezkoen lehiaketa, Andoaingo Udalen Euskara Sailak eta ESCIVI zinema eta bideo eskolak elkarrekin antolatzen dutena. Lehen saria Unai Garcia gazte andoaindarrak irabazi zuen



Saritutako ikasleak eta Udal ordezkariak, ekitaldiaren amaieran ateratako argazkian. AIURRI

### Xabier Lasa ANDOAIN

Bederatzi lan aurkeztu dira aurtengo "Andoain Laburrean" lehiaketara. Xedea gazteen euskarazko sorkuntza sustatzea da, bereziki, ikus-entzunezkoen sektorean. Andoaingo Udaleko euskara lan sailak eta ESCIVI Zine eta Bideo Eskolak antolatuta, aurreko ostiralean egin zuten sari banaketa ekitaldia. Ekitaldira sarituak eta haien senideak, zine eta bideo eskolako ikasleak eta Udal ordezkariak hurbildu ziren. Sariak

Andoni Alvarez alkateak eta Marta Lasa Kultura zinegotziak banatu zituzten. Ekitaldia Ainhoa Aiertzak aurkeztu zuen. Amaieran, Ane Rotaetxeren "Kosmikoa" laburmetraia eskaini zuten. Bideo guztiak ikusgai daude Andoaingo Udalen Youtubean duen kanalean.

Lehen saria jaso duen lana fikziozkoa da, beren buruaz beste egiten duten pertsonen eta Unanibiko sorginak uztartzen dituenak.

### Saritutako lanak

- **Ikuslearen saria:** "Itxaropen ditira". Egileak: Josu Artola, Jon Martin eta Dery Alfaro.
- **Bigarren saria:** "Goazen hemendik". Egileak: Aitana del Olmo, Eduardo Perez, Nahia Lacalle, Marcos Alves, Manex Usarraga, Asier Jimenez, Markel Sorarrain, Haritz Muxika, Ainhoa Mediero, Imanol Etxaide eta Maia Nogueira.
- **Lehen saria:** "Otsailaren 15a". Egilea: Unai Garcia.



Ainhoa Ozaeta. ETXERAT

## Ainhoa Ozaeta preso aske geratu da

Hamasei urteko espetxealdia beteta, aske utzi zuten Frantziako agintariek

### Erredakzioa ANDOAIN

Etixeratek eman zuen albistea, otsailaren 15ean: "Ainhoa Ozaeta Mendikute preso politiko andoaindarra aske gelditu da, 16 urteko zigorra bete ostean". Ozaeta Andoaingo alkate-ordea izendatu zuten 1999-2003 legealdian, Euskal Herritarrok ordezkatzuz. Agintaldia bukatu aurretik utzi zuen Andoain. Gerora, 2008ko maiatzean, Frantziako poliziak Bordelen atxilotu zuen. 2014an epaitu zuten, Igor Suberbiola eta Jon Salaberriarekin batera, eta hogeitau urteko espetxe zigorra ezarri zioten, ETako kide izatea leporatu ostean. Euskal Herritik ia 1.000 kilometrora egon da preso, orain arte, Reau sud Francilieneko espetxean.

## Ospitale psikiatrikoen bizipenak jasotzen dituen filma, Basteron

AGIFES Buru Osasun Arazoa duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak antolatu du emanaldia

### Erredakzioa ANDOAIN

Agifes elkarteak Zinema eta Buru Osasuna zineforum saioa eskainiko du otsailaren 27an, arratsaldeko 18:30ean hasita, Bastero kulturagunean. Filma 'Inocencia interrumpida' izango

da, Susanna Kaysen idazle estatubatuarren memorieta oinarritutako drama, mugako nortasunaren nahasmenduarekin diagnostikatu ondoren bizitako esperientziei buruzkoa. Pelikulak 1967an ospitale psi-

kiatriko bateko paziente gisa izandako bizipenak kontatzen ditu. Han, protagonistak Lisa, Georgina, Polly eta Janet ezagutuko ditu, zeinekin adiskidetasun estua izango duen eta, gainera, bere burua aurkitzeko bidea erakutsiko dion. Angelina Jolie emakumezko aktore onaren Oscar saria irabazi zuen 2000. urtean, film horri esker.

Sarrera doakoa izango da, eta ondoren buru osasuneko arazoan esperientzia duten bi gaztek parte hartuko dute.



Angelina Jolie aktoreak Oscar saria jaso zuen, 2000. urtean. 'INOCENCIA INTERRUMPIDA'

# 27 milioi euroko Udal aurrekontua

Gobernu taldean dagoen EH Bilduk Gabonetan ekin zion 2024ko Udal aurrekontuen proposamenaren negoziatioari. Bidean, Elkarrekin Podemosen eta EAJ-PNVren aldeko botoak bereganatu ditu. Babes zabala du, beraz, aurrekontuak

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Protagonismo handia bereganatu zuen Lainez sozialistak, bera izan baitzen gehien hitz egin zuena. Andoaingo PSE-EEk proposamen zehatzak aurkeztu zituen plenoan, eta gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu-proposamenean hainbat partida hutsaren hurrengo bilakatu zirela salatu zuen. EH Bilduk -eta baita EAJ-PNVk ere- ukatu egin zuen hori horrela zenik, partida zehatz berri ugari sortu zirela argudiatuz.

Elkarrekin Podemosek etxebizitzan, inbertsioetan eta beste hainbat alorretan adostu diren partidak txalotu zituen. Are

gehiago, sozialisten eta jeltzaleen ekarpenak eskertu zituen ezberdinen arteko lankidetzak emaitza aberasten duela nabarmenduz.

EAJ-PNVk babesa eman zion aurrekontuari, egun batzuk lehenago iragarritako akordioa berretsiz. "Ez da txeke zuria", adierazi zion Goenagak Alvarez. Baina, egiari zor, bi alderdi abertzaleek sinatu duten akordioa mamitsua da. Partida zehatzetik harago doa, inbertsioen eta altxortegiaren kudeaketa zehaztu baitute. Eraginkor jokatu nahi izan du Goenagak, lortutako onura herri osoaren mesedera-ko izango dela sinestuta.

"Lanketa handiko aurrekontu-proposamena dela esan dezakegu, errealitatea ahalik eta ondoen islatzen saiatu gara, herritarren beharrei eta herriaren erronkei erantzuteko. Nabarmentzekoa iruditzen zaigu alderdi guztien ekarpenekin egindako aurrekontua izan dela". Andoni Alvarez alkatea pozarren zegoen bozketara eraman zuen proposamenaren aurkezpenean. Ez da gutxiagorako, 17 zinegotzietatik 12ren babesa jaso du. Gutxitan lortu da hori Andoaingo jardun politikoan. Geroan ere akordio zabal horiek berretsi nahi dituela iradoki zuen EH Bilduko alkateak.

## ANALISIA

**JON ANDER UBEDA** ANDOAIN

### Lur errearen estrategia ulergaitza

Andoni Alvarezren agintaldiko lehen aurrekontua onartuko zela ezaguna zen. Alderdien artean zer nolakoa izango zen eztabaida, horixe zen aurrekontuari onespina emateko plenoak izan zezakeen alderik interesgarriena. Ordu eta erdi luzean entzundakoak entzunda, haserre gailendu zela ondorioztatu nuen. Berziki, Lainez sozialisten bozeramailearen berbaldiak eragindakoa. Haserrealdiaren sorburua 56. minutuan aurki daiteke. Hortxe piztu zen metxa, alkate ohiak Podemosek eta EAJ-PNVk EH Bildurekin sinatutako akordioak baloratzeari ekin zionean. "Iparragirre jauna, gerora EH Bilduk eta EAJk sinatu dutena ezagututa, ez dugu oso argi non geratu den zuek sinatutako akordioa". Eta bigarrena batzuk aurrrerago, Goenagari: "EH Bilduk eta EAJ-PNVk sinatu duten akordioari buruz, antzekoa gertatzen zaigu, iragartzen duten

akordioaren lehen partida dagoeneko EH Bilduren lehen zirraborroan ageri zen". Sozialistak kritikatzeko duen estilo hori, bi alderdi horiek Alvarezekin lorturiko akordioak gutxiesten dituen, ulergaitza zait niri. Ezaguna denean Lainezen alderdiak, PSOE, Espainiako Kongresuan akordio zehatz ugari negoziatu eta iragartzen dituela EAJ-PNVrekin, EH Bildurekin, ERCrekin...

Etxebizitza Mahaian sakontzea eta eskola publikoaren alde ekitea, hori da Podemosek negoziatioari atera dion etekina.

Zazpi orrialdeko akordioa sinatu dute EH Bilduk eta EAJ-PNVk. Tartean, urte anitzeko inbertsioen zerrenda. Ez dira hitz hutsak akordioan jasotakoak.

EH Bilduri aurre egitea, argudio eztabaidagarriekin bada ere, gidoian sar daiteke. Baina gainerako alderdiak haserrarazteko taktika hori zertara datorren ez dut ondo ulertzen.



## Andoaingo emakumeentzako jabekuntza eskola

2024 - UDABERRIKO IKASTAROAK

**Filosofia eta Feminismoa: Emakume filosofoak arrazoi patriarkalaren aurka**  
ASTELEHENAK. **Apirilak 15, 29; maiatzak 13, 27; ekainak 10, 17.** 18:30-20:30, Urigain.

**Arte garaikidea eta feminismoa**  
ASTEARTEAK. **Apirilak 16, 23; maiatzak 07, 14, 21, 28; ekainak 04, 11.** 18:00-20:00, Arrate.

**Batukada feminista**  
ASTELEHENAK. **Apirilak 08, 22; maiatzak 13, 27; ekainak 10.** 18:00-20:00, Leizaran institutua.

**Brikolaje oinarritzkoa**  
LARUNBATA. **Maiatzak 11.** 9:30-14:30, Urigain.

**Sexualitate kontzientea: beste emakume batzuk maite dituzten emakumeentzat**  
LARUNBATAK. **Apirilak 27; maiatzak 25; ekainak 15.** 9:30-14:30, Urigain.

**Autodefentsa feminista**  
LARUNBATA. **Maiatzak 18.** 9:30-14:30, Allurralde kiroldegia.

**Sendabelarrak ezagutzen**  
I taldea: ASTEAZKENAK. **Maiatzak 08, 15, 22, 29.**  
II taldea: ASTEAZKENAK. **Ekainak 05, 12, 19, 26.** 18:00-20:00, Urigain.

**Ginekologia naturala eta maitasunezkoa**  
ASTELEHENAK. **Apirilak 22; maiatzak 20; ekainak 03.** 17:00-20:00, Urigain.

**Korrikaren munduan murgilduz**  
ASTEARTEAK eta OSTEAGUNAK. **Apirilak 16, 18, 23, 25; maiatzak 07, 09, 14, 16, 21, 23, 28, 30.** 18:00-19:00, Allurralde.

**Zaintzaileentzako ongizate emozional eta autozainketa lantegiak**  
OSTEGUNAK. **Marxoak 21; apirilak 18, 25; maiatzak 02, 16, 30; ekainak 13, 27.** 15:00-17:00, Urigain.

**Jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturala**  
ASTEARTERO. **16:30-18:30, Urigain.**



**ANDOAINGO UDALA**

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:  
**jabekuntza.andoain.eus**  
Andoaingo Udaleko **Berdintasun** lantegia.  
Tel. **943 300 830**, luz. **380 - 397**;  
**berdintasuna@andoain.eus.**  
Andoaingo Udaleko **ATARIA** zerbitzua







Asteartean egin zuten egitarauaren aurkezpen ekitaldia udaletxean. AIURRI

# Martxoaren 8rako prest

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi oparoa aurkeztu dute: erakusketa, antzerkia, antzokia, ikastaroak, manifestazioa, bazkaria, pala topaketa, dokumentala, literatur solasaldia... Martxoko lehen hamabostaldi osora luzatuko da egitaraua

## Erredakzioa ANDOAIN

Aurkezpenean izan ziren Haizea Barandiaran Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia, Aritz Alkain PSE-EEko zinegotzia, Idoia Mikelez EAJ-PNVko zinegotzia, Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko zinegotzia, Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikaria, Ianire Huizi Berdintasun dinamizatzailea, June Mateo Gazte Lokaleko hezitzailea eta Karrikako Ludotekako koordinatzailea, Maite Arroyo, Arantza Gomez eta Idurre Pontesta Zuena Emakumeen Topaguneko ordezkariak, eta Nerea Uralde Martxoak 8ko kartelaren egilea.

Ekitaldi guztiek ere interesapiztaile diren osagaien jabe izan arren, aipatzekoak dira zenbaitzuk. Besteak beste, Berdintasun Oihalak izenburuko ibilaldia herriko kaleetan barrena, mar-

txoaren 9an egingo da. Ekitaldi nagusia Bekoplazan egingo dute, eta bertan egon ohi ziren garbitokietan arropak garbitzen aritzen ziren emakume gobaragileek hartuko dute protagonismoa.

Martxoaren 1etik apirilaren 20ra, "Traficadas. Esklabotzarako Bidaiak" erakusketa ikusgai egongo da Basteron. EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen erakusketa da, eta arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen diziplina ugariaren erakusleioa da. Legez kanpoko merkataritzaren eta pertsonen prostituzioaren gainean salaketa eta hausnarketa bultzatzen du erakusketak.

Martxoaren 16an, berriz, Andoaingo Leizaran eskubaloi taldeko jokalariei beterranoek 2023ko urtarrilean egin zuten berrelkaltzeari buruzko dokumentala aurkeztuko dute.

## Nerea Uralde, kartel irabazlearen egilea

Uraldek berak Aiurriri azaldu zion zer islatu nahi izan duen irudiarekin: "Emakumeen ikuspegitik herrian dagoen kultur-aniztasuna irudikatu nahi izan dut. Era horretan, herriaren kokagunea eta herritarren bilgunea sinbolizatzen duen udaletxetik abiatuta, jatorri desberdinetako hainbat emakume gorantz, zerurantz doazela ageri dira; bizitzan gora eta gora doaz, edo behintzat da hori asmoa, ametsa, itzaropena... Tximeletaren hegaldia eginez doaz. Emakume guzti horien bultzatzaile edo sustengu, berriz, munduko kartel feministarik ezagunenean agertzen den emakume langilea da, emakume ahalduaren ikono bilakatu dena. Egia esanda, harekin egin dudana bertsio librea da kartelean ageri dena".

## Askotariko hitzorduak, egitarauan



Garazi Kamio eta Susana Cencillo. MUSIKA BULEGOA

**Konpasetan** Sei emakumeren bitzei eta lanari gainbegiratu da. Bidaia Kuban hasi eta Euskal Herrian amaitzen da. Eskusoinuaren laguntzaz, emakume eta abesti bakoitzaren historiak kontatuko dituzte.



2017ko irudia. AIURRI

**Pala topaketa** Andoaingo Arraten palaz jokatzeko gogo duen edozein emakume jardunaldi irekian parte-hartzera gonbidatuta dago. Palak eta pilotak antolatetako eskainiko ditu. Beterrri-Buruntzako emakumeei zabaldua dago deialdia.



Juana Perea. RCN RADIO

**Solasaldia** 2020ko urriaren 29an Juana Perea aktibista soziala aurkitu zuten hilik. Jon Artano kazetariak haren ibilbidea jaso zuen saiakera-liburuan, eta hori aurkeztera etorriko da Bastero Kulturgunera.





Aurtengo kartela. URALDE

## Nerea Uraldek irabazi du aurtengo kartel lehiaketa

Andoaingo Martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko lehiaketa irabazi du andoaindarrak

### Erredakzioa ANDOAIN

Eskarmentu handiko diseinatzailea da, eta sari ugari lortu ditu urteotan. Besteak beste, Andoaingo eta Urrietako jailetako hainbat lehiaketa. "We Can Do It!" AEBtan Bigarren Mundu Mailan ezagun egin zen mugimenduaren irudian aurkitu du inspirazioa egileak, oraingoan.



Nerea Uralde 2022ko Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketarekin. AIURRI

# AURTENGO EGITARAUA

## MARTXOAK 1

### OSTIRALA

Erakusketa: "Traficadas. Esklabotzarako bidaiak". Legez kanpoko merkataritzari eta pertsonen prostituzioari buruzko salaketa eta hausnarketa-lana da. Martxoak 1-Apirilak 20. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00. Larunbata: 18:00-20:30. Bastero, erakusketa gela.

## MARTXOAK 2

### LARUNBATA

Irakurketa musikatua: "Konpasetan: Bidaia intimo bat emakumeen istorioetan zehar". Testuak: Garazi Kamio. Musika: Susana Cencillo. 18:30, Bastero kulturunea.

## MARTXOAK 6

### ASTEAZKENA

Mural Margoketa. 17:30, Gazte Lokala.

Erakusketa parte-hartzailea. Zure inguruan zer? Nerabeek egunerokotasunean kontsumitzen dituzten baliabideen azterketa. 17:30, Gazte Lokala.

## MARTXOAK 7

### OSTEGUNA

Kulturarteko sukaldaritza lantegia. 17:30, Gazte Lokala.

Zinea-dokumentala: "Arnasa betean". Atzoko eta gaurko euskal zinemagileak protagonista. 19:00, Bastero kulturunea.

## MARTXOAK 8

### OSTIRALA

Txapa lantegia. 17:00, Ludoteka.

Autodefentsa ikastaroa. 17:30, Gazte Lokala.

Manifestazioa, Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. 18:30, Goikoplazan hasita.

Kontzertua: Haize-arrosa Bizkaiko taldeak askotariko estiloak lantzen ditu: folk, pop, country,... 20:30, Bastero kulturunea.

Emakumeen afaria: Haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen da (aldez aurretik eskatuta). Aldez aurretik eman behar da izena: 676 567 724. berdintasuna@andoain.eus 20:30, Zumea plaza.

## MARTXOAK 9

### LARUNBATA

"Berdintasun Oihalak" martxa San Juan Bautista nagusien egoitzatik abiatuko da. 12:00, Martxaren hasiera. Ekitaldi nagusia, Bekoplazan.

Emakumeen bazkaria, Zuen emakumeen topalekuak antolatuta. Aldez aurretik eman behar da izena: 606 929 697. zuenaemakumeentopalekua@hotmail.com. 14:30, Oianume jatetxea.

Buruntzaldeko Emakumeen IV. Pala Topaketa. Parte-hartze irekia. Materiala utziko da. 17:00-20:00, Arrate pilotalekua.

## MARTXOAK 12

### ASTEARTEA

Antzerkia: "El parto". 20:30, Bastero kulturunea.

## MARTXOAK 14

### OSTEGUNA

Jon Artano kazetariaren solasaldia: "Juanaren istorio harrigarria". Ekintzaile ekologista eta lider soziala. Kolonbiako narkoparamilitar talde batek erail zuen, 2020ko urrian. 18:30, Bastero kulturunea.

## MARTXOAK 16

### LARUNBATA

Dokumentala: Zuengatik gara topaketa. Andoaingo eskubaloiko jokalarri beterenen bilkuraren dokumentala. 18:30, Bastero kulturunea.

## Aldarrikapen bikoitza, kalean



Aurreko urteetako manifestazioa jendetsua izan da. AIURRI

**Manifestazioa** Hausnartzeko, ezagutzeko eta ikasteko zikloa antolatu du Berdintasun Sailak. Baina bada martxoaren 8a aldarrikapen eguna eta, azken urteetako joerari eutsiz, mugimendu feministak manifestazioa deitu du hilaren 8rako.



"Berdintasunaren Oihalak" martxa iaz egin zen, estrainakoz. AIURRI

**Martxa** San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzatik abiatuko da "Berdintasunaren Oihalak" martxaren bigarren edizioa. Iaz abiatu zen herritar askoren parte-hartzearekin. Martxoaren 9an izango da, larunbatarekin.



**andoainDARRA**  
euskaraz





Zatarain auzo berria eraikitzeke kamioiak Urnietako Zabaleta auzotik igarotzen ari dira. AIURRI

## Urnietako Bidea eremuko bizilagunak ere kexu dira kamioien joan-etorriekin

Zabaleta auzoan, kamioien joan-etorriek, bizilagunen artean, ezinegonak eta protestak eragin dituzte azken urteetan, zarategatik eta zikintasunagatik, batik bat. Lasarte-Orian ere badira bizilagunak bat egiten dutenak kexuekin eta protestekin

**Xabier Lasa** URNIETA

Urnietako Bidean, GI-3832 errepedearen bi aldeetan bizi dira lasarte-oriatar horiek, eta maiz etorri izan dira Zabaleta auzokoek antolatuta izan dituzten protestetara. 28 bat baserri eta etxe kokatzen dira GI-3832 errepede inguruan, Lasarte-Oriako udalerrian. Bizilagun horiei ez die eragiten Urnietako lursailetan kokatzen diren zerrategira edo egur birziklapenerako instalaziora eta eraikuntza hondakinen zabortegira doazen kamioiak, baina bai Zatarain auzo berriaren eraikuntzara doazenak.

Hain zuzen, Zatarain auzo berria eraikitzen ari dira Oztaran izenez ezagutzen zen bailaran, Urnietako Bidean, Lasarte-Oriako lur sailetan. Guztira 250 etxebizitza aurreikusita daude bizigune berrian, eta dagoeneko 150 egin dituzte. Bizigune berriak 80.000 mila karratu izango ditu,

eta etxebizitza, libre, kontzertatu eta babestuz osatuko da.

Horrela, Lasarte-Oriako bizilagun horien kasuan, haserrea Urnietatik datozen kamioiek eragindakoa da. Izan ere, Lasarte-Oriako Udalak debekua ezarri zuten tona handiko kamioiei hiribarronetik igaro zitezen, eta derrigor, Urnietatik, Zabaleta auzotik doan GI-3832 errepedea hartu behar izan dute kamioi horiek.

Zatarain auzo berriaren lanean ari den enpresa promotoreak Lasarte-Oriako etxeetan banatu zuten esku-orrietan irakur zitekeen, "ingurunea landa eremua

**ZATARAIN AUZO BERRIA ERAIKITZEN ARI DIRA OZTARAN IZENEZ EZAGUTZEN ZEN BAILARAN**

izanik, ingurua errespetatzen duten gaur egungo eraikina diseinatu dira... Ikuspegi ederrak dituen zonalde eguzkitsu hau, herriguneko zarata eta estresetik urruntzen da...". Oraingoan, ordea, zarata eta estresa da Urnietako Bideko bizilagunek jasan izan dutena. Zehazki, errepede bazterrean kokatzen den etxe bateko familiak salaketa jarri zuen, kamioien joan-etorriek etxearen hormetan zein barruko geletan pitzadura ugari sortu dituztelako. Epaike-tara eraman zen kasua, eta sententziaren zain dago familia.

**Mesfidati, nahiz eta eten egin den kamioien joan-etorria**

Urnietako urtarrileko osoko bilkuran, Segurado alkateak iragarri zuen otsailaren 15etik aurrera ez zaiola baimena berrituko Zatarain auzo berriaren ari den eraikuntza enpresari, kamioiak Urnietatik igaro daitezkeen.

Bada, Urnietako Bideko bizilagunek nabaritu dute eten dela kamioien trafikoa, aipatu dataz geroztik, eta poza agertu dute. Nolanahi ere, oso mesfidati segitzen dute debeku horrek izan dezakeen iraupenari dagokionez. Izan ere, Zatarain auzo berria urbanizatzeko ia erdia geratzen da egiteko, eta aurrerantzean ere ezinbestekoa izango da kamioien materialen garraioa. Berehala pizten zaie galdera, alegia, "nola jarraitu behar ote dute obrek, Lasarte-Oriako eta Urnietako udalen debekuak indarrean badira?".

**Lasarte-Oriako Udalaren arrazoiak**

Lasarte-Oriako Udalak debekua ezarri zuten Zatarain auzoko urbanizazio obretako tona handiko kamioiei bere udalerritik igaro zitezen, eta beraz, Urnietatik, GI-3832 errepedetik joan behar izan dute azken urteetan.

Urnietako Bideko bizilagun horien kexuei erantzunez, Lasarte-Oriako Udalak zera adierazi zuten, 2019an: "Desiragarria izango litzateke kamioiak Lasarte-Oriako udalerritik bertatik igaro izatea". Eta horregatik, bi aukera aztertu zituela jakinarazi zuten, hots, Goikale kaleetik ala San Frantzisko kaleetik. Baina atzera bota zituen biak, "Lasarte-Oriako udalerriarren konfigurazioa dela eta, igarobide hori bideraezina" dela argudiatuz. San Frantzisko kalearen kasuan, ohartarazi zuten bi bihurgune handi eta kaltzadada estua dituela, etxebizitzadentsitate handiko kalea dela, eta 15-20 aparkaleku kendu beharko lirakeela. Goikale kaleari dagokionez, zirkulazioaren noranzkoa aldatu beharko litzatekeela, eta gainera, manio-brak egiteko zailtasun handiko bi bihurgune dituela.

Azken batean, "herritarren interes orokorra" gailendu behar duela adierazi zuten bizilagunei, eta "bizilagun gutxi batzuen interes partikularra" ezin dela "San Frantzisko eta Goikale auzo osoaren interesaren gainetik jarri".

**ZATARAIN AUZO BERRIA LASARTE-ORIAN DAGO, BAINA KAMIOIAK URNIETATIK IGAROTZEN DIRA**



Maixabel Setien, "Urnietar Prestu". AIURRI

## Gurutzeta baserriko Maixabel Setien zendu da

2011n "Urnietar Prestu" izendapena jaso zuen, udalerriko beste hiru emakumerekin batera

**Erredakzioa** URNIETA

Aurreko larunbatean zendu zen, 79 urte zituela. Baserriari eta lehen sektoreari lotuta eman zuen bizitza. Hernanin oso ezaguna zen, udaletxeko arkupeetan barazkiak saltzen zituelako. Omenaldia eta guzti egin zioten, Hernanin. 2011n, Inñistorrak antolatuta, bigarren omenaldia jaso zuen Urnietan. "Galbidean dagoen bizimodua izan arren, oraindik orain, baserriko ogibideari eusten dionik bada", horrela aurkeztu zuten omenaldia. Oztaran, Ergoien, Lategi eta Goiburu Urnietako lau auzoetako baserriar emakume bana omendu zuten.



Lurdes Arozena, Maixabel Setien, Pili Intxausti eta Angela Garmendia, 2011ko irailean ateratako argazkian. AIURRI





Baionako kaleetan emanaldia eskaini zuten aurreko larunbatean. URKI

## Baionako Inauterietako Euskal Festan parte hartu zuen Urkik

Aurreko asteburuan ospatu zen Lapurdiko hiriburuan mozorro festa, eta bertan izan zen Urki Dantza Taldea

### Erredakzioa ANDOAIN


Otsailaren 17an, larunbatarekin, Andoaingo Urki Dantza Taldeak Baionako Inauterietako Euskal Festan parte hartu zuen, Euskal Herriko gainerako probintzietako talde banarekin. Egun oso ospakizunetan parte hartu zuten, gainera. Goizean, Alde Zaharreko txoko esanguratsuenetan dantza saioak eskaini

zitu zuten. Ikusleen txalo zaparrada jaso zuten, gainera. Elkarrekin bazkaldu ondoren, dantzan jarraitu zuten, harik eta arratsaldeko 17:00etan ospakizuna Zanpantzarren epaiketa eta erreketak ikusgarriarekin amaitu zen arte. Esperientzia gogoangarria izan zen Andoaingik joandako dantzari eta gurasoentzat.



Urki Dantza Taldeko dantzariak eta txistulariak Baionan, Zanpantzarrekin. URKI

## GORA ETA BEHERA



AIURRI



## Jokabide zatarra, Buruntzan

Zaborrontzia bertan izanik ere, argazkian ageri diren janari-poltsak eta edalontziak lurrean eta eserlekuan botata ageri dira. Jokabide zatarra, bertan eseri nahi duten gainerako herrikideak kontutan hartzen ez dituenarena.



ERRIGORA



## Errigoraren kanpaina berria

Otsailaren 25etik martxoaren 13ra Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan erostekoa aukera izango da Errigora.eus gunean.



AIURRI

## Azken bi asteetako saridunak

Abiatu da Egunean Behin lehiaketaren 14D denboraldi berria, eta "Aiurri" taldean laugarren asteko sariduna "Sasu" urnietarra izan da. Otsailak 5-11 asteko 7 partidak jokatu zituen, ehunka lehiakide dituen Aiurri taldean. Otsailaren 12-18 asteko lehiakideen arteko zozketan, berriz, zorionekoa "Mcanflan" andoaindarra izan zen. Denboraldi honetan Andoaingo Arruti gozotegiko pasta-kaxa zozkatzen ari gara. On egin eta zorionak bioi! Gainerako lehiakideek aste honetan sari gozoa eskuratzeko aukera berria dute.



AIURRI

MARTXOAK

1-2

OUTLET  
KALEAN

ANDOAINGO DENDAK  
BETI ZUEKIN

GORA KALETKIKI  
TKARANGA

17:30 - 19:30

SALKIN

bertatik bertara



## IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

## Erabakiak



Mikel Iturria eta Mikel Bizkarra, hamarkada osoa talde berean. EUSKALTEL

Bizitza erabaki bilduma bat da. Egunerokoan gehien egiten dugun ekintza. Bat hartu, bestea ez... Guk erabakitzen dugunean, gaitzerdi, erabaki asko emanda etortzen zaizkigulako. Haiek aldatzeko aukera, gainera, txikia da. Jasotako erabakia guretzat ona bada, kontent. Ez bada, komeriak. Pasa den astean ezagutu genituen Espainiako Vueltako antolatzaileek abuztua eta irailean jokatu den itzulirako zein bi talde gonbidatuko zituzten.

Loteria tokatu zaie Euskal Herriko bi talderi, Euskaltel-Euskadi eta Kern Pharmari, Espainiako Vuelta delako euren erakusleiho handiena babesleak kontentatzen saiatzeko.

Ez zuten gonbidapenik espero, eta opariak ezustean etortzen direnean gusturago hartzen dira. Kirol emaitzen irizpidea aintzat hartuta, meritu gehiago zituzten talde bi baziren, gonbidapena jasotzeko hautagai sendoagoak, baina Vuelta eta beste lasterketa askotako antolatzaileak erakunde pribatuak dira, eta onean eta txarrean nahieran erabakitzen dute. Alegia, nahi dutena, edo komeni zaiena erabakitzen dutela. Batzuetan alde, eta besteetan kontra, baina bueltarik ez duten erabakiak hartzen ohituak daude.

Ikuskizun Mikel Iturria urnietarra Vueltako zortzikoan egongo den edo ez, baina talde laranja eskarmentu gehien duenetako bat izanda, behin-betiko zerrendan egoteko aukera handia du. Urteetan gora, akaso Espainiako Vuelta korritzeko, eta bigarren etapa bat irabazteko azken aukera izan daiteke Iturriarentzat. Ederra litzateke Urdazubiko helmugan bost urte atzera Euskadi-Murias taldearekin lortutako arrakasta bueltan dastatzea. Garaipenik gabe ere, Iturriak izango du familia, lagun eta ezagunen babesa Vuelta Euskal Herrira hurbiltzen denean, Gasteiz eta Izki aldera, iraila hasieran.

Iraila urrun geratzen da oraindik, baina azkar etorriko da Euskal Herriko Itzulia. Pazko astean, apirileko lehen astean, hain zuzen ere. Orduan ere izango da etxeko ziklistak errepedean ikusteko aukera ona, Itzuliak aurtan Beterrri bailarari iskin egingo badio ere. Irun aldera joan beharko da, gertuen, tropela gertutik ikusi nahi bada. Itzuliko ibilbidea ere emanda etortzen zaigun erabakia da.

Eguraldia bezala. Pixkanaka badoan negu txepelak ostikada gogor bat emanda agurtu nahi du, eta otsaileko azken egunak benetan gaiztoak omen datoz. Hainbesterako, itxuraz Adarramendi bigarrenez zurituko duela negu osoan. Elur zaleak triste gaude, baina ezin ezer egin. Aspaldi, Palentzia iparraldean, Curavacas mendia igotzeko asmotan, bertako artzainari ze eguraldi zetorren galdetu nion, eta honakoa bota zuen: 'El tiempo? El tiempo hay ke dejalu, no puedes cambialu'.

Han ginen guztiak mutu utzi gintuen artzainak.



Ansa. ORIAMENDI

## Ansa II-Azpiroz, Kutzabank Masterseko finala

Larunbat honetan urnietarra, bigarren urtez jarraian, txapela irabazten ahaleginduko da

### Erredakzioa URNIETA

Imanol Ansa 2023ko Kutzabank Masters Txapelketari segida eman nahi dio, bigarren urtez jarraian irabaziz. Ligaxkan bi partidak irabazi ditu eta, asteburuan, Azpirozen aurka ariko da. Txapelketa honetan biak izan dira onenak. Azpirozek finalean egoteko merituak egin baititu. Lehen jardunaldian Barrenetxea IV kanporatu zuen, eta ligaxkako azken partidaren Juanenea gainditu zuen (27-30).

Ligaxkan Ansa eta Azpirozen artekoa, urnietarraren aldekoa izan zen. Parez pare ibili ziren partidaren, eta azken txanpan urnietarrak hobeto asmatu zuen. Emozioa ziurtatuta dago.



Azpiroz. ORIAMENDI



Urnietak Emakumezkoen Gorengo Mailako liga amaitu berri du. AIURRI

## Euskaldunak etxean du aukera berria, eta Urnietak Getarian

Gizonezkoen Gorengo mailako liga hogeigarren jardunaldira iritsiko da, asteburu honetan

### Erredakzioa ANDOAIN

Gizonezkoen bi taldeak oso beselako egoera bizitzen ari dira, denboraldi honetan. Bigarren urtez jarraian, Euskalduna sailkapenaren gaikaldean da. Aurreko asteburuan, Ilintxaren zelaian garaipena lortu ostean (1-2), Darena taldea jasoko dute Ubitarten. Sailkapenean, 4.postuan da Euskalduna.

Lehen multzoan, maila berri-egokitzeko lanak ditu Urnieta taldeak. Aurreko larunbatean etxeko partida galdu zuen Santo Tomas Lizeoaren aurka (0-2). Asteburu honetan Getariako taldearen zelaian ariko dira. Helburu argia du Pablo de Torresen taldeak. Azken hamar jardunalditan jaitsiera postuetatik aldentzea. Une honetan hamalagarren postuan sailkatuta daude eta salbazioa lau puntura dago. Urnietarrek ez dute hain erraz etsiko, talde sentimendu indartsua baitute.

### Emakumezkoen Gorengo Maila

Urnieta 2. Multzoan jokatzeko ari da eta aurreko asteburuan amaitu zuten Liga. 18 jardunaldi eta gero, bederatzi taldeko ligan Urnieta seigarren postuan sailkatu da. Lau garaipen eta hiru berdinketa lortu ditu. Sailkapenean atzean utzi ditu Ilintxa, Orioko eta Lagun Onak B taldea,



Aurrekoan Santo Tomas Lizeoaren aurka lehiatu ziren urnietarrak. AIURRI



Urnieta  
udala



## Txirrindularitza saioa Kaleberrian

Andoaingo Txirrindulari Eskolak denboraldi hasierako proba antolatu du. Larunbat honetan izango da, Kaleberrian. Ibilbide itxia da, Lankide Aurrezki Kutxa pareta eta Guipuzcoanoren artekoa. Hainbat itzuliguru eta gero, azken itzulian erabakitzen da lasterketa. Ikusteko proba polita da.



ANDOAINGO

## Zumeatarra lehian aritu zen, taldean

Andoaingo klubeko ordezkariak Zornotzan, Sevillan eta Garain aritu dira. Azken horretan, taldekako proba mixtoan hirugarren postuan sailkatu ziren. SuperSprint delakoan 2 kilometro egin zituzten korrika, beste zazpi bizikletan eta, amaitzeko korrika kilometro bat gehiago.



ZUMEATARRA

## Rajado, hirugarren Zestoan

Zestoan VIII. Kobaz Koba mendi lasterketa jokatu zen, aurreko asteburuan. Bi proba jokatu ziren: Zaldei (26 kilometrokoa) eta Artzei (15 kilometrokoa). Ibilbide luzean Asier Rajado andoaindarrak parte hartu zuen eta hirugarren postuan sailkatu zen 02:21:29 denbora eginez.



UROLA KOSTAKO HITZA/GUKA

## Euskal Ligako bigarren partida etxean

Kadete mailako taldeak asteburuan jokatu du Euskal Ligako laugarren jardunaldia, Allurralden. Lehen partidaren garaipena lortu zuen etxean, eta kanpoan jokatutako bietan ez du emaitza onik lortu. Ea etxeko zaletuen laguntzaz emaitza ona eskuratu dezaketen.



LEIZARAN



Miren Imaz, UKE taldeko kidea jaurtitzeko prest. UKE

## Senior mailako eskubaloi taldeen jardunaldi berria

Leizaran Ernio eta Urnieta Artola senior mailako mutilen taldeak etxean ariko dira, asteburu honetan

### Erredakzioa ANDOAIN

1.Lurraldeko senior gizonen hamaseigarren jardunaldia ez da ona izan gure bi taldeentzat. Andoaindarrak Eibarren galdu zuten (25-19), eta urnietarrak ere esku hutsik itzuli ziren Zarautzetik (28-23). Garaipenaren bidea berreskuratzeko aukera dute bi taldeek, asteburuan. Leizaranek Aritz-

batalde jasoko du etxean, eta Urnietak Urola.

Emakumezkoetan, Gipuzkoako Ligan, Urnietak Egia garaitu zuen (21-19). Asteburuan Txingudi liderraren etxean jokatuko dute.

Euskal Ligan, atsedenaldiaren ostean, Leizaran Lanbroa Eibarren kantxan ariko da. Ea garaipena ekartzen duten etxera.



Atsedenaldiaren ostean, Euskal Ligako jardunaldi berria dute neskek. LEIZARAN





## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 22

**URNIETA Jabekuntza Eskola**  
Ikastaroen izen-ematea zabalik,  
plazak bete arte.  
*Informazioa: Bertan, Urnieta.eus.*

## IGANDEA 25

**ANDOAIN Omenaldia**  
Aitziber Ugartemendiaren aldeko  
herri-omenaldia.  
*12:00, Bastero.*

## ASTEAZKENA 28

**URNIETA Kontzertua**  
Lourdes lirondo musika eskolako  
trikitixa ikasleek musika emanaldia  
eskainiko dute.  
*18:30, Sarobe.*

## OSTIRALA 1

**ANDOAIN Antzerkia**  
Harreman irekien eta  
sexualitatea ulertzeko era  
ezberdinen inguruko antzezlan da.  
Erre Produzioak konpainiaren  
eskutik.  
*20:30, Bastero.*



Nerea Gurrutxaga eta Oihana Vesga. MARIZAUNKA

**ANDOAIN "Erreka ondoan, bi gezur"**

Nerea Gurrutxaga eta Oihana Vesga dantzari eta sortzaileek, elkarlanean,  
dantza garaikidea eta ahotsaren lanketa oinarri dituzten sormen  
koreografikoak ekoizten dituzte. "Erreka ondoan, bi gezur" izeneko  
ikuskizuna irudimena pizteko ariketa da. Jolasetan parte hartzera ere  
gonbidatuko dute ikusleagoa.

*Otsailak 23, ostirala. 20:30, Bastero Kulturgunea.*

## LARUNBATA 2

**ANDOAIN Zuhaitz-landaketa**  
Eguzkiren eskutik, Muntton.  
*09:00, Otieta aparkalekua*

## IGANDEA 10

**ANDOAIN Haur antzerkia**  
"3 zimurren artean kontukari".  
*12:00/17:00, Bastero.*

## ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO**

**El color purpura**  
Lar, 24. 19:30,  
22:00.  
Ig, 25. 19:30.  
Astl, 26. 19:30.

**Corre, Tiger, corre**

Lar, 24. 17:00.  
Ig, 25. 17:00.

**Inocencia interrumpida**  
Astearte, 27.  
18:30.



## SINOPSISIA

**El color purpura**

**Zuzendaria:** Sam Blitz Bazawule. **Aktoreak:** Danielle Brooks, Taraji P. Henson, Corey Hawkins, Fantasia Barrino, Halle Bailey,...


**Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Drama.

**Iraupena:** 141 min.

## Film musikala

Celie neska beltz iparramerikarra da, eta aitaren aldetik tratu txarrak jasotzen ditu. Albert nekazariarekin ezkontzera behartzen dute, eta senarraren aldetik krudelkeria besterik ez

du jasotzen. Celie Jainkoaren beldur da eta bere askapena jazz abeslari baten itxuran dator. XX. mendearen hasierako emakume afroamerikar baten bizitza osoko borrokei buruzko filma da.



# Kantu afaria

## MARTXOAK 1, OSTIRALA

### 20:00 Altuna sagardotegia

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko

Izena emateko hiru aukera:

- Mezua idatzi Aiurrira: 619 163 537
- Mezua idatzi AEKra: 662 338 747
- Kantazaun taldekoekin harremanetan jarri



**INISTORRI**  
Urnieta Euskaltzaleen  
Biltzarra

**KANTAZAUN**







Aitziber Ugartemendia andoaindarra, artxiboko irudian. AIURRI

## “Ilargiraino eta buelta... maite zaitugu Aitziber!” ekitaldia

Igande honetan izango da Bastero Kulturgunean, eguerdiko 12:00tan hasita, haren lagunek antolatuta

### Erredakzioa ANDOAIN

Herritarren artean, arrasto sakona utzi zuen Aitziber Ugartemendia andoaindarra, eta igande honetan omenduko dute. “Ilargiraino eta buelta... maite zaitugu Aitziber!” izenburupean, haren gertukoek antolatu dute. Abenduaren 16an, gaixotasun luze baten ondorioz, zendu zen Aitziber Ugartemendia andoaindarra. Aski ezaguna zen, ibilbide oparoa egin zuelako kultur arloan. Axeri Dantzako Talde eragileko kidea zen, baita Santa Krutz Jai Batzordeko eta Puntuka Bertso Eskolako kidea ere.

2011-2015 agintaldian Kulturako zinegotzi-arduraduna izan zen. Lanbidez, Katxiporreta pailazoan konpainiako kooperatibako kidea zen.

Abenduko egun haietan etxekoek babes zabala jaso zuten, dozenaka herrikide hurbildu baiten Aitziberren aldeko hil-kaperara. Igande honetan, haren ibilbidearen ertz ugari jasoko dituzte. Musika, dantza eta kantua ez dira faltako, beraz, Basteroko ekitaldian.

Ekitaldia irekia da, baina gonbidapena behar da. Eskuragarri daude Kale Nagusiko Li dendan.

### ESKELA

#### Maixabel SETIEN IPARRAGIRRE andrea



Urnietar Prestua (2011)  
Urnietan hil da, otsailaren 17an, 79 urte zituela

Zaude Maixabel azken bidaian,  
urnietar denon gogoan.  
Hego haizeak ala iparrak jo  
baserri ondoko soroan;  
emakume eta Urnietar prestu  
Euskalgintzaren golkoan;  
belazeetako hozkirrian eta  
sutondopeko txokoan.  
Betiereko izango zara  
zure maiteen ondoan!



Urnietan, 2024, otsailak 22.  
Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra (Manuel Larramendi Kultur Bazkunekoak)

## ZORION-AGURRAK

### ANDOAIN

#### Ongi-etorri, Oihan!


Otsailaren 2an jaio zen gure txapelduna. Ongi etorri!!! Muxuak, baita ere, Naroa eta Aitor gurasoentzat, izeba Amagoia eta amona Izaskunen partetik.



AIURRI

## Literatur-solasaldia

Datorren otsailaren 27an, literatur-solasaldia izango da Andoaingo Bastero Kulturgunean. Ane Mayo izango da dinamizatzailea eta Eider Rodriguez idazlea bertan izango da. "Eraikuntzarako materiala" eleberria 111 Akademia Saria jaso zuen, 2022ko udaberrian. Erreferentziarako idazle bilakatu da Rodriguez, azken urteotan.



Matx aplikazioa. AIURRI

## Matx euskarazko kirol-aplikazioa aurkeztu dute

TOKIKOMek garatu du, Aiurri astekariko erredakzio taldeko partaidetzarekin

### Erredakzioa URNIETA

Matx kirol-aplikazio bat izango da. Kirola dinamizatuko du, gertuko balioan jarriz, eduki freskoa eskainiz eta kirolzaleen, kirolarien eta klubaren arteko harremanak erraztuz. Ikus-entzunezko edukiak, emaitzak, sailkapenak eta klubentzako digitalizazioerako erreminta ere izango da. Sare sozialetan egin du agerpena, baina laster aplikazioa izango da.

Tokikom sareak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak elkarlanean pentsatu eta landu dute egitasmoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin. Arduradunen esanetan, "gertuko kirol komunitate berri bat" sortzeko intentzioarekin garatu den "proiektu estrategikoa" da Matx.

Tabakaleran egin zuten agerraldia, asteazken arratsaldean. Eta proiektuko kideekin batera, bertan izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordea Miren Dobaran eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Eider Mendoza diputatu nagusia. Federazioetako eta klubetako ordezkariak, kirolariak eta babesleak ere gonbidatu zituzten Matx-en aurkezpen-ekitaldira.

**arruti** pasteleria

**Etxeko obradorea**  
**Enkarguak jasotzen ditugu**

Zumea 18, ANDOAIN

**943 593 777**

Babeslea: egunean behin?



**Mikel Arberas** ANDOAIN

Andoaindarrak lehen pausoa musika eskolan eman zuen, ondoren, Katramila antzerki eskolara jauzi egin eta, urtetan, beste hainbat proiektutan murgilduta egon da. Egun, Bilboko Pabellon 6 antzokiko Gazte Konpainiako "Egun Zoragarriak" (*Dias Estupendos*) antzerkiko aktorea da.

**Nondik datorkizu interpretaziorako zaletasuna?**

Eszenatokiarekin lehen harremana kantuaeren bitartez eduki nuen. Umetatik abesten aritu naiz, batik bat, musika eskolan. Hari horri tiraka, antzerkiari buruz gehiago jakiteko gogo sortu zitzaidan, beraz, Andoaingo Katramila antzerki eskolan izena ematea erabaki nuen. Urteak aurrera egin ahala, zer ikasi pentsatu behar izan nuen, beste guztiak bezala, eta Bilboko Dantzeri Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantzaren Goi Mailako Eskolan eman nuen izena. Lehen promozioa izan ginen. Lau urte bizi izan ziren, eta ikasitakoarekin obra bat egin genuen Fernando Bernuesek zuzendurikoa. Zoritxarrez, horren ostean, pandemia iritsi zen eta nire jarduna, bat-batean, gelditu egin zen.

**Interpretazioari buruz jardun dugu, baina abeslaria ere bazara.**

Bai. Musika eskolan nintzen abeslari, eta, ondoren, korora jauzi egin nuen. Horrez gain, iaz, "Elektropottotte" elektrotxaranga sortu genuen zenbaiten artean. Oraingoan, hainbat lekutatik deitu gaituzte jaiak eta kaleak girotzeko.

**Hortaz, umetan zaletasun zen hori ogibide bilakatu al duzu?**


Baietz esango nuke. Pandemiaren ostean, ikastetxeetan interpretazio klaseak eta antzerki-gintza irakasten hasi nintzen. Dena den, zerbait falta nuela sentitzen nuen, eta Madrilera jauzi egin nuen Kamera Aurreko Interpretazio Masterra egitera, Central de Cine eskolan. Titulua lortu, itzuli eta irakasle-lanetan jarraitu nuen denbora batez. Eta, egun, "Egun Zoragarriak" antzerki emanaldian nabil aktore-lanetan.

**Arte eszenikoen arloan lan ugari egindakoa zara, irakasle edota aktore gisa. Egun, berriz, "Egun Zoragarriak" (*Dias estupendos*) antzezlaren emanaldiarekin buru-belarri zabilta. Nola lortu zenuen papera?**

# "Andoainera ekarri nahi dut *Egun Zoragarriak*"

**ITXASO SANCHEZ** AKTOREA

Andoaindarra umetatik egon da arte jardueretan murgilduta. Lehen pausoa musika eskolan eman zuen, eta gustuko bidea egiten jarraitu du, gaur arte



Itxaso Sanchez argazki-saio batean. ASIER CORERA

Pabellon 6 Gazte Konpainiako hauta-probak egin nituen, udan. Hauta-proban bi hizkuntzetan testu bat irakurri eta abesti bat kantatu behar izan nuen, informazio gehigarririk gabe; hau da, aktore gisa, egorara moldatu behar izan nuen, testuan jartzen zuena kontuan edukita –testuaren eta interpretazioaren arteko koherentzia ezinbestekoa da—. Esanak esan, etxean entseatzen aritu nintzen denbora luzez eta, ondoren, egun zehatz batean, epai-mahai-kideen aurrean egin nuen proba, beste hainbat hautagairen artean. Azkenik, bizpahiru asteetara hautatua izan nintzela esan zidaten.

**Hitz egin apur bat "Egun Zoragarriak" obrari buruz.**

Obra uda aldean kokatuta dago. Hamasei eszenaz osatuta dago, eta bakoitzak bere gatazka du, besteekiko inpedentea dena; eszena bakoitzean pertsonaia bat lantzen da. Obra, batez ere, komedian oinarrituta dagoen arren, badiu drama kutsuak, pertsonaien gatazka propioak lantzen baitira ere. Horrez gain, obraren xedea bizitzeko gogo

**"ANTZEZLANAK HARRERA GOXOA IZAN ZUEN BILBON EGINDAKO ESTREINALDIAN"**

transmititzea eta eguneroko nondik norakoak azaleratzea dela esango genuke; baina, noski, udan guztia ez da poza eta alaitasuna, gauza txarrak ere gertatzen dira. Hori guztia islatu nahi du antzezlana. Eta beno, gehiago jakiteko ikustera gonbidatu nahi dut irakurlea.

**Nolakoak izan ohi dira antzerkia prestatzeko entseguak?**

Oso ondo moldatu gara entseguetan, izan ere, guztiok lehen egunetik gidoia buruz ikasita genuen. Entseguen gaztelaniazko testuekin ekin genien eta mugimendu-koreografia ere hizkuntza horren arabera osatu genuen. Ondoren, estreinaldirako hilabeteren buruan, euskarazko bertsioari errepasatzeari ekin genion, behar bezalako erritmoa hartzeko.

**Noiz izan zen estreinaldia eta zer moduzkoa?**

Urtarrilaren 19an estreinatu zen antzezlana, euskaraz, eta, hurrengo astean, erderaz egin genuen. Esan beharra daukat, prozesua ona eta eroso izan dela Itziar Lazkanoren gidaritzapean. Horrez gain, aktoreen arteko erlazioa oso naturala izan da, gertukoa. Familia bat garela esan genezake.

**Urduritasun handia sumatu zenuen estreinaldiko egunean?**

Egia esan, bai. Egunak neraman lo ondo egin gabe. Egun handia gerturatzen ari zen heinean, urduritasuna handitzen joan zen. Hala eta guztiz ere, antzezlana oso harrera goxoa eta gertukoa eduki zuen estreinaldian; izan ere, senitartekoak, lagunak eta antzerkizaleak bertaratu ziren. Gaztelaniazko bertsioan antzeztu genuenean, berriz, sarrera guztiak saldu genituen, bi aldiz. Oro har, harrera bikaina edukitzen ari da.

**Antzezlana Andoainean egiteko asmoa ba al dago?**

Niri asko gustatuko litzaidaketa Andoaingo Bastero Kulturunean antzezte. Polita litzateke, Andoainean, nire herrian, lagunak, herritarren, familiaren eta, batez ere, aitona-amonen aurrean antzezte.

**Etorkizunera begiratzean zer datorkizu burura?**

Aktore lanetan jarraitu nahiko nuke eta bide horretatik landu nire etorkizuna. Benetan gustuko dudana delako. Baina, auskalo, nire atea zabalik daude, betiere, ikasteko eta lan egiteko gogoarekin.